

2003KO UZTAILAREN 3KO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hiruko uztailaren hiruan, arratsaldeko zazpitan, Udal Osoa biltzen da Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, aurrez honetarako egindako deialdiaren arabera, ez-ohiko batzarra egin asmoz. Honako zinegotzi hauek bertaratu dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jáuregui, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti, Alejandro Crespo Blanco eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Juan Manuel Serna Portugal zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Izaro Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

Toki Entitateen Erregimen Juridiko, Antolaketa eta Funtzionamendu Arautegiak bere 38. artikuluan xedatutakoari jarraituz ondorengo puntuen azterketa, erabakitze eta jakinaren gainean gelditzea du helburutzat batzaraldi honek.

Osoko Bilkura honetako Eguneko Gai Zerrendan ezarrita dauden puntuekin hasi aurretik, Alkateak adierazten du Gorka Lamy Insausti zinegotzi hautatua Udalaren Eraketa egin zen 2003ko ekainaren 14ko Ez-Ohiko Osoko Bilkurara ezin etorriagatik kargua hartu gabe gelditu zela, eta dagokion deialdia luzatu zaiolarik eta gaurko egunean etorri delarik Alkateak karguaren jabetza ematen dio.

I.- TALDE POLITIKO ETA BOZERAMAILEEN IZENDAPENA.-

Alkateak azaltzen du Hauteskundeetara aurkeztutako EAJ-EA koalizioak bi talde politiko osatuko dituela:

- EAJ/PNV Talde Politikoa, ondorengo zinegotziek osatuta: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jáuregui, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti eta Alkateak berak.
- EA Talde Politikoa, ondorengo zinegotziek osatuta: Igor Sarriegi Zumarraga, Arantxa Zumelaga Agirre eta Kepa Goenaga Alikostes.

Ondoren Alkateak talde politikoaren bozeramaileak zein diren berri ematen du: EAJ/PNV talde politikoaren bozeramailea Inazio Estensoro Eskisabel eta EA talde politikoaren Igor Sarriegi Zumarraga.

Angel Olaso zinegotziak esaten du berak osatzen duela PP talde politikoa eta bera izango dela beraren bozeramailea.

Alejandro Crespo zinegotziak esaten du Juan Manuel Serna Portugal eta berak osatzen dutela PSE-EE talde politikoa eta Juan Manuel Serna izango dela bozeramailea.

...///...

...///...

II.- OSOKO BILKUREN ALDIZKOTASUNA ETA EGUNA ETA ORDUA EZARTZEA.-

Osoko Bilkuren aldikoitasuna eta hauek egiteko egun eta orduari buruz, Osoko Bilkurak, aho batez, ohiko batzarraldiak hilean behin egitea erabakitzen du. Bilkura hauek hileko azken ostegunean egingo dira, arratsaldeko 7etan. Egun hau jai izanez gero aurreko edo ondorengo astera aldatuko litzateke.

III.- ALKATEA LAN SAIO OSOAN UDAL LANETAN ARITZEKO LIBERATZEA ETA ORDAINSARIAK.-

Alkateak esaten du proposamena dela aurreko legealdian bezala Alkatea lan saio osoan Udal lanetan aritzeko liberatzea, eta liberazio honen ordainsariari buruz esaten du EUDELen proposamenaren arabera ARCEPAFEren 25 maila aplikatzea planteatzen dela, eta gainera dedikazio eskusibo kontzeptuan % 15eko gehikuntza.

Gaineratzen du Alkateak talde politikoen ordainsariei buruz ere orain arteko ordainketa sistema berdinarekin jarraitzea proposatzen dela: 262,36 euro zinegotzi bakoitzagatik. Honez gainera, zinegotzi bakoitzagatik, Batzorde presidentziarik ez badauka, 43,73 euro, eta Batzorde presidentziarik badauka, A mailako Batzordea bada 262,36 euro eta B mailako Batzordea bada 131,18 euro.

Olaso zinegotziak (PP) galdetzen du ea Alkatearen ARCEPAFEren 25 mailak brutoan zenbat diru suposatzen duen, eta zein diren A mailako Batzordeak eta B mailako Batzordeak.

Alkateak erantzuten dio ARCEPAFEko 25 mailak 2001ean 6.375.659 pta (38.318,48 euro) suposatzen zuela, eta horri gaur arte % 7,3ko igoera aplikatu beharko litzaiokela KPI-ren arabera emandako igoerarengatik.

A eta B mailako Batzordeak zein diren argitzen du orduan Alkateak:

- A mailakoak: Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Batzordea; Ingurugiro B.; Gizarte Ongizate eta Sanitate B.; Udal Promozio eta Sustapen B.; Nekazaritza, Baserri eta Mendietako B.; Ogasuna, Pertsonal eta Kontuen B.; Kultura eta Festa B.
- B mailakoak: Euskara eta Hezkuntza B.; Kirol eta Gaztedi B.

Une honetan, arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean, Juan Manuel Serna Portugal zinegotzia bertaratzen da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) eskatzen du talde politikoei dagokien zenbakiak mahai gainean jartzea eta hilabete honetan bertan hurrengo Osoko Bilkuran onartuak izatea.

Alkateak erantzuten dio aurreko legealdian izandakoaren berdina izango litzatekela.

Eztabaida honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko hamar botuz (EAJ/PNV, EA, PP) eta bi abstentzioz (PSE-EE), Alkatea lan saio osoan Udal lanetan aritzeko liberatzea eta bere ordainsaria onartzen dira.

...///...

...///...

IV.- BATZORDE INFORMATZAILEEN SORRERA ETA OSAKETA.-

Alkateak esaten du, lehen zerrendatu duen bezala, Batzorde Informatzaileen sorrerari buruz honako proposamena egiten duela:

- Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Batzordea.
- Ingurugiro Batzordea.
- Gizarte Ongizate eta Sanitate Batzordea.
- Udal Promozio eta Sustapen Batzordea.
- Nekazaritza, Baserri eta Mendietako Batzordea.
- Ogasuna, Pertsonal eta Kontuen Batzorde Berezia.
- Kultura eta Festa Batzordea.
- Euskara eta Hezkuntza Batzordea.
- Kirol eta Gaztedi Batzordea.

Serna zinegotziak (PSE-EE) zerrenda honen kopia bat eskatzen dio.

Alkateak baiezkua erantzuten dio, esaten du kopia emango zaiela beste alderdi politikoei eta baita parte hartu nahi duten bizilagunei ere; gaineratzen du ohi moduan Batzordeetara etorri nahi dutenei aste bateko edo epea jarriko zaiela izena emateko, eta bitarte horretan Batzorderen bat bildu beharko balitz zerrenda-burueri pasatuko zaiela deialdia, eta baita orain arte Batzordea osatu dutenei ere.

Estensoro zinegotziak (EAJ/PNV) esaten du kanpotik Batzordeetara etortzen direnei konpromiso bat eskatu beharko lietzaiekela jarraitasun bat eskatuz eta etorri behar direnak beti etorri daitezela, baina ez intereseko gai bat dutenean bakarrik.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aho batez, proposamena onartzea erabakitzen du.

V.- UDALAK PARTE HARTZEN DUEN ORGANU KOLEGIATUETAN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.-

Udalak parte hartzen duen organu kolegiatuetan ordezkariak izendatzeari buruz, Alkateak honako proposamen hau egiten du:

- Goierri Beheko Industria Lurrean: Felix Urkola Iriarte.
- GOIEKIn: Felix Urkola Iriarte.
- Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa: Felix Urkola Iriarte.
- Ikañan Fundazioa: Felix Urkola Iriarte.
- EUDEL: Felix Urkola Iriarte.
- Drogomenpekotasun Batzordean: Arantxa Zumelaga Agirre.
- Sasieta Mankomunitatean: Felix Urkola Iriarte, Alkatea, eta Kepa Goenaga Alikostes; Ordezkoak: Igor Sarriegi Zumarraga eta Inazio Barandiaran Aldasoro.
- GOIMENen: Inazio Estensoro Eskisabel.
- Enirio-Aralar Mankomunitatean: Inazio Estensoro Eskisabel.
- Tolosako Hiltegi Mankomunitatean: Inazio Estensoro Eskisabel.
- Gipuzkoako Ur Kontsultazioan eta Gipuzkoako Urak: Felix Urkola Iriarte.

...///...

...///...

Olaso zinegotziak (PP) esaten du hori guztiaren kopia nahi duela, eta sentitzen duela ez parte hartzea. Aipatzen du inolako Batzordeetako Presidente ez izateak ordezkarietaz egon ahal izatea eragozten diela.

Alkateak erantzuten dio hau dena dugun egoeraren ondorio dela eta pentsatzen duela beste Udal batzuetan alderantzizko egoera emango dela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 10 botu (EAJ/PNV, EA, PP), eta 2 abstentzioz (PSE-EE) proposamena onartzea erabakitzen du.

VI.- ALKATEORDE, GOBERNU BATZORDEKO PARTAIDE, ETA BATZORDE INFORMATZAILEETAKO PRESIDENTE IZENDAPENEI BURUZ ALKATETZAKO ASMOEN BERRIEMATEA-

Alkateak Osoko Bilkurari jakinarazten dio Gobernu Batzordeetako partaide, Alkateorde eta Batzorde Informatzaileetako Presidenteentzuz izendapenei buruz, luzatuko dituen alkateetako ebazpenen bidez honako hauek izendatuko dituela:

Azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 52.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Batzordeko partaideak: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

- Lehen Alkateorde Igor Sarriegi Zumarraga.
- Bigarren Alkateorde Inazio Estensoro Eskisabel.
- Hirugarren Alkateorde Xanet Barreras Jauregi.
- Laugarren Alkateorde Arantxa Zumelaga Agirre.

Batzorde Informatzaileetako Presidente berriz honako hauek:

- Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Batzordekoa: Inazio Barandiaran Aldasoro.
- Ingurugiro Batzordekoa: Kepa Goenaga Alikostes.
- Gizarte Zerbitzuak eta Osasun Batzordekoa: Arantxa Zumelaga Agirre.
- Udal Promozio eta Sustapen Batzordekoa: Amagoia Naldaiz Mingo.
- Nekazaritza, Baserri eta Mendietako Batzordekoa: Inazio Estensoro Eskisabel.
- Ogasun, Pertsonal eta Kontuen batzorde Berezikoa: Inazio Estensoro Eskisabel.
- Kultura eta Festa Batzordekoa: Xanet Barreras Jauregi.
- Euskara eta Hezkuntza Batzordekoa: Xabier Arrasate Aierbe.
- Kirol eta Gazteria Batzordekoa: Igor Sarriegi Zumarraga.

Osoko Bilkura guztiaren jakinaren gainean gelditzen da.

VII.- BILKURAREN AMAIERA-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Jaunak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkari Akzidentalak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.